

Seigarren Murrizketa.- Obrak egiteko murrizketak

Trafikoko operazio berezien egunetan eta ibilgailu asko batera mugitzen direnean trafikoak izaten dituen ezaugarri bereziak direla eta, trafikoaren arintasuna eta bide-segurtasuna hobetze aldera, Trafiko Zuzendaritzak eta eragindako bideen erakunde titularrak obrak eteteko koordinatuko dira VI. eranskinean ezarritakoaren arabera.

Hala ere, VI eranskinean jasotako egun eta orduetan obrak egin behar badira, bidearen erakunde titularrak obra horien berri eman beharko dio Trafiko Zuzendaritzari, behar bezala arrazoituta eta behar besteko aurrerapenez.

VI. ERANSKINA

2025. URTEAN ZEHAR, ZIRKULAZIOAREN EZAUGARRI BEREZIENGATIK ERREPIDEETAKO OBRAK ETETEA

2025rako aurreikusitako ibilgailuen joan-etorri masiboak eta trafikoko operazio bereziak direla-eta, Trafiko Zuzendaritza eta errepideen erakunde titularrak koordinatu egingo dira.

A: Eraginpeko eremuari eta zirkulazio-plataformari eragiten dieten obrak eteteko:

NOIZTIK		NOIZ ARTE	
EGUNA	ORDUA	EGUNA	ORDUA
Apirilaren 16a	15:00	Apirilaren 17a	24:00
Apirilaren 21a	08:00	Apirilaren 21a	24:00
Ekainaren 27a	15:00	Ekainaren 28a	24:00
Uztailaren 24a	15:00	Uztailaren 25a	24:00

abuztuaren 1a	15:00	abuztuaren 2a	24:00
abuztuaren 29a	15:00	abuztuaren 30a	24:00
Azaroaren 1a	08:00	Azaroaren 1a	24:00
Abenduaren 5a	15:00	Abenduaren 6a	24:00
Abenduaren 8a	08:00	Abenduaren 8a	24:00

B: Zirkulazio-plataformari eragiten dioten obrak eteteko:

Asteburuetan, ostiraleko 15:00etatik igandeko 24:00etara, errepideen erakunde titularrek justifikatutako arrazoiengatik berariaz besterik jakinarazi ezean.